



## Joxerramon Bengoetxea

EHU-ko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Filosofiako irakasle

**Joxe Ramon Bengoetxea** Irunen jaio zen 1963an. Euskal Herriko Unibertsitatean 1986an zuzenbidean lizentziatu ondoren, Doktore titulua Edinburgheko Unibertsitatean lortu zuen. Egun, Teoria Juridiko, Soziologia eta Zuzenbidearen Filosofiako irakasle titularra da Euskal Herriko Unibertsitatean. Oñatiko Soziologia Juridikoko Institutuko zuzendari (2005-2007), Luxemburgeko Europar Komunitateko Justizia Auzitegiko letratua (2001-2004 y 1993-1998) eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuorde (1998-2001) izan da, besteak beste. Lan askoren egilea, bereziki aipatu behar ditugu honako monografiak: *The Legal Reasoning of the European Court of Justice*, Oxford University Press, 1993, *Zuzenbideaz. Teoria Kritiko Trinkoa*. IVAP, Oñati 1993 eta *La Europa Peter Pan. El Constitucionalismo Europeo en la encrucijada*, IVAP, Oñati, 2005. Ingelesez, frantsesez, espainieraz eta euskaraz ikertzen du.

---

### 1.

Berriki, Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa saria eman dizute, Euskal nazioa Europako erakundeetan integratzeko burututako zure ikerketa azpimarratuz. Zer suposatu du zuretzat sari honek, agian Euskal Herriak Europan zeresana daukalaz konbentzitu duzula bertoko jendea?

(*Barre egiten du*). Ez dut uste sariak hori saritzen duenik, horrela bada, behintzat, ez dakit merezi dudana. Edozein kasutan, inor konbentzitzea ez da nire asmoa izan. Zertaz konbentzitu gainera? Europar Batasuna eta Europa hortxe daude,

eta gure zati bat bezala, egoteko bide gisa, ulertu behar ditugu. Nire funtzioa beti izan da, lehenengo, neronek Europa eta haren integrazio prozesua ulertzea, laberinto konplexu bat delako, eta ondoren, jendeari hori ulertaraztea. Zentzu honetan, beti jo dut oso garrantzitsutzat, oro har, Europak nola funtzionatzen duen eta gure Zuzenbidea nola eraldatzen duen, eta bereziki, bertan eskualdeek zein toki izan dezaketen azaltzea. Hori gure inguruan. Europan, bestalde, Europa Estatukideei begira bakarrik ulertzea, haien azpian dagoenari muzin eginez, desegokia dela zabaltzen ahalegindu naiz. Europa bera ulertzeko bere osagai, aberastasun eta aniztasun guztiak kontutan hartu behar direla defenditu dut beti. Nire ustez, hori guztia saritu nahi izan dute, horren guztiaren inguruko lan praktikoa eta teorikoa.

## 2.

Zure ustez zein toki dute eta zein toki izan behar dute eskualdeek Europan?

Aurreratu bezala, ezinezkoa da Europa ulertzea berau osatzen duten lurralde eta eskualde guztiak kontutan hartu gabe. Hala ere, galderaren lehenengo zatiari erantzunez, ezin uka daiteke egun leku nahiko mugatua dutela. Eskualdeen Batzordea dago, eta eskualde batzuek Europako parlamentuko kideak zuzenean aukeratzeko eskubidea dute. Gainera, kasu batzuetan, ez guztietan, Kontseiluan beren Estatuaren gobernuko delegazioetako kide izateko aukera ere badute. Zein beharko luke egoerak? Neutralak izan gaitezke eskualdeek Europan zein toki duten esaterakoan, baina zein beharko luketen adierazterakoan neutraltasuna galdu egiten da. Hori norberaren planteamendu ideologiko-politikoaren arabera da. Nire kasuan, ez da sekretua, nire amets politikoa Europako Estatu Batuak sortzea eta horien artean Euskal Herria edo Euskal Herriaren zati bat ikustea dela. Hori da nire amets pertsonala. Euskal Herriak edo honen zati batek ez luke independentzia izango, edo ez termino hau gaur egun ulertzen den moduan, ez litzatekeelako Estatu subirano bat, federatu bat baino. Nik Europar Batasun Federatu baten barruan Euskal Estatu Federatu bat desio dut.

## 3.

Euskal Estatu Federatuaz mintzo zarenean, zer daukazu buruan, egun Erkidego Autonomoa osatzen duten probintziak ala baita Nafarroa ere?

Nire ametsa, eta desioekin jarraituz, Euskal Herriko 7 probintziek Europan Euskal Estatu Federatua osatzea litzateke. Baina hau oso zail ikusten dut, oso utopiko, ez dudalako uste Euskal Herriko eskualde guztietako gehiengoek hori nahi dutenik. Horregatik, gutxienez egungo Euskal Autonomi Erkidegoko gehiengo bat horren alde balego, nik horren alde egingo nuke, nahiz eta Euskal Herriko zati guztiak batera joan ez. Badakizu askotan ametsaren erdian esnatzen garela. Ni hemen esnatuta ere pozik nengoke! Gainera, guztiz posible litzateke Euskal Herria Europako bi Estatu federatutan egotea, Amerikar Estatu Batuetan, Carolinarekin gertatzen den bezala, North Carolina eta South Carolinak Estatu Federatu desberdinetan Federazioaren parte izanik. Horregatik, nik ez nuke arazorik izango Euskal Autonomi Erkidegoa (hiru probintziak), alde batetik, eta Nafarroak bestetik, azken honek horrela nahiko balu, Europan federatuta baleude.

Baina, nire susmoa da Nafarroako gehiengo zabal batek ez lukeela Europan horrela egon nahiko, Espainiako Estatu Federatu handiaren parte gisa baino.

## 4.

Zer ematen die edo eman diezaieke Europak eskualdeei?

Nik esango nuke Europak bi gauza nagusi ematen dizkigula, joko eremua batetik eta nortasun europarra bestetik. Lehenengoaren inguruan, Europa integrazio eremu bat da eta horretan joko-arauak garbi egon behar dira, horien artean, adibidez, mugitzeko askatasuna, hiritartasun europarra, Europak munduarekiko izan behar duen solidaritatea (garapenerako laguntza, kasu) eta oinarrizko eskubideak. Eta horiek guztiek, lehen aipatzen nuen bigarrena ekartzen dute, nortasun europarra, hobe, unibertsaltasun amankomun europarra. Horrez gain, ezin dugu ahaztu Europa gauza asko dela, batez ere, hizkuntza eta kultura aniztasuna. Hori guztia ere ematen digu Europak.

## 5.

Zergatik sentitzen dira herritarrak Europatik hain urrun? Nola hurbildu hartara?

Europaren hainbat adiera desberdinu behar dugu. Europar Batasuneko arkitektura instituzionalaz mintzo bagara, nire ustez, honen konplexutasunetik, labirintu izaeratik, dator herritarren urruntzea. Baina, benetan, ez da ez dugula ulertzen, jartzen bagara ulertzen baitugu, kontua da ulertzeko zaila dela. Arlo honetan komunikabideek eta hezkuntzak lan handia dute egiteko. Baina beste modu batera denok sentitzen gara europarrak. Europatik kanpoko lurraldeak bisitatzen ditugunean (Afrika, Amerika esaterako), orduan denok sentitzen gara europarrak. Orduan jabetzen gara gure europartasunaz eta orduan sortzen da gure europar-zaletasuna. Bigarren galderaren harira, Europara gehiago hurbiltzeko ezinbestekoa da beste Estatukideen eta euren kulturaren berri gehiago izatea.

## 6.

Europa barrutik ezagutzen duzu, Europar Auzitegiko letratu izan zinen (1993-1998 eta 2001-2004), eta duela

urte batzuk Europarako Konstituzio proposamen bat ere egin zenuen (*La Europa Peter Pan. El constitucionalismo europeo en la encrucijada*, HAE, Oñati 2005). Zein uste duzu direla egun Europako arazo nagusienak eta nola egin dakieke aurre?

Momentu honetan, egoera dela eta, ekonomia eta finantzak eta langabezia dira, bereziki, Europaren arazo nagusienak. Horiei garrantzia kendu gabe, etorkizunerako Europak bi erronka ditu: Estatuak daukaten zigortzeko ahalmenaren edo *ius puniendiaren* inguruan bermeak finkatzea eta gure eredu sozio-ekonomikoaren, ongizate gizartearen mantenua. Pertsonaren duintasunak bi horiek zaintzea eta sakontzea galdatzen du. Lehenengoaren inguruan ezinbesteko gertatzen dira Europako ituna eta Europako Giza Eskubideen Auzitegia. Beste batzuen artean, auzi justua izateko eskubidea garatu behar da, eta Estatuak kontrol zorrotzagoa egin behar zaie bere zigor ahalmenen egikaritzan. Bigarren erronkaren aurrean, ongizate gizartea mantentzeko, eredu ekonomikoaren ikuspuntua garbi izan behar dugu. Ez da posible Estatuari gero eta zerbitzu hobea eta ugariagoak eskatzea eta gure zerga zama hain arina izatea. Estatuak zerbitzuak eman ahal izateko zergak igotzea ezinbestekoa da, eta horrekin batera hiritarrak zergen erabilpen horretan gehiago inplikatzeko.

## 7.

Sariarekin bukatzeko, Europaren inguruan egindako ikerketagatik saritu zaituzte. Zer duzu zure burua ikasletzat, ikerlarizat ala irakasletzat?

Funtsean ikasle naiz, bizitza osoan ikasten jarraitu nahi dudalako. Hala ere, ikerlari eta irakasle lanak nahiko ondo antolatu ohi ditut. Lauhilabeteko batean hainbat eskola ematen ditut (lau masterretan eta zuzenbide graduan edo lizentziaturan) eta bigarrean ikerketan murgiltzen naiz buru-belarri. Gainera, irakasle lanak ikerketa lanean laguntzen dit, eta alderantziz.

## 8.

Berriki, 2010eko irailean, Maite Zelaia irakaslearekin batera, "Eskualdea, Europar Batasuneko "Kide" berriaren inguruabarrak" izeneko udako ikastaroa antolatu duzu. Jakin dakizunez, *Eleriaren* zenbaki berezi batean argitaratuko dira

han aurkeztutakoak, beraz luze eta zabal irakurtzeko aukera izango dugu, baina aurreratu, mesedez, ikastaro honen helburuen eta parte-hartzaileen ingurukoak.

Eskualde kontzeptua, malgua, dinamika federal batean landu nahi izan dugu. Zehazki, bi osagai nahastu eta konbinatu nahi izan ditugu: instituzional hutsa, hau da, zein toki duten eskualdeek European, nola joka dezaketen bertan, nola ziurtatu euren parte-hartzea,... eta bestetik, European eskualdeek gure burua arautzeko daukagun aukera edo autonomia noraino heltzen den. Bigarren zentzu honetan, bereziki erreparatu diegu justiziarri, merkatuari eta lan harremanei. Eskualdeek arlo horietan daukagun arautzeko gaitasuna aztertu dugu. Parte-hartzaileen inguruan, esan behar udako ikastaro bat baino mintegi bat izan dela, batez ere zuzenbidearen inguruan aritzen garenon arteko elkar ezagutze eta iritzi trukaketa bikaina izan delako. Guztiok geratu gara harrিতuta, benetan, ikastaroan ikusi den mailarekin.

## 9.

Ikastaroa euskara hutsean egin duzue. Zergatik eta zertarako?

Euskaraz egin dugu euskaraz aritzen garenon eta Europako eskualdeen inguruan ikertzen dihardugunon arteko iritzi aldaketa garrantzitsua dela uste dugulako. Gainera, Euskal Herriko Unibertsitateetatik kanpo badira, nahiz eta euskaraz ikertu ez, euskaraz dakitenak, eta horiekin guztiekin kontaktu nahi izan dugu, gutxienez masa kritiko bat sortzeko. Zalantzarik gabe, etorkizuneko proiektu edo asmo berriak sortzeko iturria izan daiteke.

## 10.

Euskararen harira, nola ikusten duzu oro har euskararen egoera Zuzenbidearen arloan? Zuk *Zuzenbideaz Teoria Kritiko Trinkoa* (Oñati, 1993) idatzi zenuenetik gauzak asko aldatu dira?

Liburu hori 1993an argitaratu zen eta euskaraz idatzitako Zuzenbideko lehenengo liburuetarikoa da. Orduetik hona dezente normalizatuz joan da euskara Zuzenbide ikasketetan eta ikerkuntzan. Gure arazoa da erabiltzaile komunitate oso murrizta dugula, horregatik, nire ustez, euskaraz argitaratzen ditugun lanak ondo aukeratu behar ditugu. Euskaraz argitaratu behar

ditugu dibulgazio kontuak, ikas materialak... Planteamendu honetan, *Eleria* bezalako euskarazko aldizkari generalistak beharrezkoak dira. Baina ikerketaren fruituak zabaltzeko, eta esfortzuak, denbora eta lana alegia, ondo kudeatzeko, nire ustez ingelesa erabili behar da. Nire urte askotako esperientzian sekula santan ez dut tamalez euskaraz idatzitako ikerketa lan baten erantzunik edo kritikarik jaso.

## 11.

2005-2007 urteak bitartean Oñatiko Soziologia juridikoko Nazioarteko Institutuko zuzendari zientifikoa izan zinen. Egun Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia juridikoko programa bat koordinatzen duzu. Zuzenbide munduko askorentzat soziologia juridikoa erabat ezezaguna da. Mesedez, argitu zer den, zen funtzioa duen eta gizartearentzat daukan garrantzia.

Soziologia juridikoa zuzenbidearen beraren ulermena da. Normalean, arau positibo hutsak azaltzen ditugu, oso kaotikoa den munduan argi apur bat egiten ahaleginduz, baina ahalegindu al gara azaltzen zergatik sortu den arau bat, nola txertatu den gizartean, zertarako, nola jartzen den praktikan,...? Horiek dira soziologiaren galderak. Orain arte egindako dogmatika txarra izan da, soziologia kontutan hartu ez dugulako. Europa mailako ikerketetan ikuspuntu soziologiko hori bereziki zaintzen da *socio-legal* ikuspuntua asko landuz.

## 12.

Unibertsitateko irakasle izan zara urte askotan, baita Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko idazkari ere (1991-1993). Nola ikusten duzu unibertsitatea?

Soziologikoki oso aldatuta, Zuzenbide Fakultatea behintzat. Komunikazio akademikoa falta da. Harreman pertsonalak badira, baina diziplinartekotasun gutxi ikusten dut. Unibertsitate mailan ere, gizarte zientzien artean diziplinartekotasuna faltan botatzen dut. Gainera, unibertsitatea asko formalizatu edo protokolizatu da. Orain balorazio agentziek baloratzen dituzten egintzak baino ez dira egiten. Ez dago eztabaida espontaneorako denborarik. Eta neurri handi batean guri lepora dakiguke hori horrela bilakatu izana.

## 13.

Bukatzeko, politika munduan ere aritua zara. 1998-2001 urteen bitartean, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako sailburu orde izan zinen. Eskertuko genizuke egungo egoera politikoaren balorazio bat.

Bai, kargu politiko bat izan nuen eta alderdi bateko kide ere izan nintzen, Eusko Alkartasunakoa, 17 urtetan, baina 2008an utzi nuen eta orduz geroztik ez nago inon. Egia esan, beti izan dut nire burua independentetzat, nahiz eta alderdi batean egon. Ez dut nire burua politikari gisa ikusten, nahiz eta politika asko interesatzen zaidan eta eginkizun benetan duina dela uste dudana. Askotan politikariak mesprezatu arren, alderdi guztietan daude onak eta beharrezkoak dira. Bestalde, gure inguruneke politika bi elementuk markatu dute: ETaren biolentziak eta Batasunaren harekiko segidismoak, alde batetik; eta konstituzionalismo sakralizatuak, bestetik. Horiek aldatuz gero egoera politikoa asko aldatuko da. Orduan dena erabakita eta betirako finkatuta dagoela defendatzen duten konstituzionalistek ez dute ezer eztabaidatu nahi izango. Hori benetako oztopo izango da; orain arte bezala. Bana orain arte terrorismoa ezer ez eztabaidatzeko aitzakia izan da. Biolentziarena konpontzen den unetik, zein izango da gauzak bere horretan uzteko aitzakia berria? Sakon eztabaidatzen jardun beharko dugu. Nire aldetik oso garbi daukat eztabaida berrietan erabili behar dugun gai nagusietako bat: Europar Batasunean nola kokatzen garen. Esan bezala, nik Euskal Herria Europa Federalean Estatu Federatu bilakatzearen alde egingo dut apustu.